

**INGURUMEN ETA
LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA****5886**

165/2008 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.

Otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatze-ko eta kutsatutakoa garbitzekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babestea du xede, gizakiaren ekin-tzen eraginez lurzoruaren ezaugarri kimikoetan sortuta-ko eraldaketari aurrea hartuta. Lege horrek aipaturiko lurralde-eremuan dauden lurzoru kutsatuei eta eralda-tuei aplikatzeko araubide juridikoa ere ezarri nahi du, ingurumena eta gizakien osasuna zaintzeko.

Bestalde, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretu-ak lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda xedatu zuen, bai eta lurzoruak kutsatutzat emateko irizpideak eta estandarrak ere.

Otsailaren 4ko 1/2005 Legearen bigarren artikuluko 5. atalaren arabera, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak bertako II. eranskinen zehazten direnak dira, lurzorua sarrien eralda edota kutsa dezaketen heinean.

Era berean, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretu-ko 2. artikuluko e) atalak honela definitzen ditu aipatuta-ko jarduerak: industriako edo merkataritzako jarduerak, substantzia arriskutsuak erabiltzeagatik edota hondaki-nak sortzeagatik lurzorua kutsa dezaketenak. Gainera, aipatutako atalean esaten da hala kontsideratuko direla Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (JESN) epigrafeetan sartzen direnak, arauaren I. eranskinen edota 3. artikuluko 2. atalean aipatzen direnak, betiere substantzia arriskutsuak ekoizten, erabiltzen edota bilte-giratzen badituzte edo erregaia muga jakin batzuk gaindi-tzen dituzten kopuruetan biltegitratzen badute.

Aipatutako arauetatik eratorritako ondorioak ga-rantz handikoak dira lurzorua kutsa dezaketen jardu-erak edota instalazioak jabetzan dituzten pertsonentzat, bai eta halako jarduerak edota instalazioak dituzten lurzoruen jabeentzat eta edukitzeaileentzat ere. Adibi-dez, Autonomia Erkidegoan eskumena duen organoari lurzoruaren egoera zein den adierazten duten txostenak aurkeztu behar zaizkio; otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 17.1 artikuluan aurreikusitako jardueretakoren bat gauzatu ahal izateko lizentziak, baimenak eta gainerako ebazpenak eman baino lehen, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen bat jaso behar da, baldin eta jardu-era horiek lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dauzkaten edo izan dituzten lurzoruetan

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO****5886**

DECRETO 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

La Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo tiene por objeto la protección del suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, previniendo la alteración de sus características químicas derivada de acciones de origen antrópico. Asimismo, es objeto de dicha ley el establecimiento del régimen jurídico aplicable a los suelos contaminados y alterados existentes en dicho ámbito territorial, en aras de preservar el medio ambiente y la salud de las personas.

Por su parte, el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados.

De acuerdo con el apartado 5.º del artículo 2 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, son actividades e instalaciones potencialmente contaminantes del suelo aquellas que se especifican en su anexo II, susceptibles de causar con mayor frecuencia la alteración o contaminación del suelo.

Asimismo, el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero define, en su artículo 2, apartado e), a dichas actividades como aquellas de tipo industrial o comercial que, ya sea por el manejo de sustancias peligrosas, ya sea por la generación de residuos, pueden contaminar el suelo. Añade el citado apartado que, a los efectos del Real Decreto, tendrán consideración de tales las incluidas en los epígrafes de la Clasificación Nacional de Actividades Económicas (CNAE), que se mencionan en el anexo I de la norma o en su artículo 3, apartado 2, cuando produzcan, manejen o almacenen sustancias peligrosas o almacenen combustible por encima de determinados umbrales.

Las consecuencias que se derivan de las normas citadas para las personas titulares de las actividades e instalaciones potencialmente contaminantes del suelo y para las personas propietarias y poseedoras de los suelos que las han soportado o las soportan en la actualidad, son de gran trascendencia. Basta citar a título de ejemplo la obligación de presentar ante el órgano competente de la Comunidad Autónoma los denominados informes de situación del suelo, la necesidad de obtener una declaración de calidad del suelo previamente al otorgamiento de licencias, autorizaciones y demás resoluciones que habiliten para llevar a cabo alguna de las actuaciones previstas en el artículo 17.1 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, cuando éstas vayan a ser desarrolladas en sue-

egin behar badira; azkenik, aipatzekoak dira urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko 8. artikuluan aurreikusen diren Jabetza erregistroko publizitate mekanismoak ere.

Aipatutako bi arauk ezarritako betebeharrak bete ahal izateko, otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 33. artikulua, lurzoruei buruzko politikaren tresnak arautzen dituen atalean, adierazten du Autonomia Erkidegoko Gobernuak, ingurumen-organoak egindako proposamena kontuan hartuta, lurzorua kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen zerrenda onartuko duela.

Helburu hori du dekretu honetako edukiak. Batetik, aipatutako ezaugarriak dituzten lurzoruen inbentarioa onartzen du eta, bestetik, etengabeko eguneraketa erregulatzen du. Horren bidez, lurzoru berriak gehitzeko prozedura zehazten du, edota inbentarioan sartutakoak ateratzekoa, lurzorua kutsa dezaketean jarduerarik ez dutela eta inoiz izan ez dutela egiaztatzen bada, nahiz eta, adibidez, lurzorua kalitatea berreskuratzeko neurriak hartu dituzten.

Dekretu honen bidez onartutako inbentarioa egiteko erabilitako metodologiak ondokoak ditu oinarri: udal eta udalaz gaindiko iturri dokumentaletatik bildutako informazioa, landara egindako irteerak eta udal teknikari egindako elkarrizketa pertsonalak. Hori guztia, lurzorua kutsa dezaketean jarduerak identifikatzeko eta aurkitzeko, eta horien datuak lortzeko.

Dekretu honen bidez onartutako eta erregulatutako inbentarioarekin lotura estua du Lurzorua kalitateari buruzko administrazio erregistroak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 35. artikulua bidez sortu zenak. Erregistro horrek aipatutako Legea aplikatetik lortzen den informazio guztia jasotzen du, beste datu batzuen artean, eta ondokoen osagarri gisa funtzionatzen du: inbentarioaren edukia, JESNen epigrafeak eta erregistratutako partzelan gauzatzen diren edo gauzatu diren eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduera edo instalazioen izendapena, eta jardueraren edo instalazioaren kalifikazio hori arrazoitzen duten kasuak, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko 3. artikuluko 2. atalean zehaztutako irizpideen arabera.

Dekretu honen bidez onartzen den inbentarioa eta bere eguneraketak oso informazio tresna erabilgarria dira lurzorua kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko lan egiten duten eragile guztientzat; esaterako, herri erakundeentzat, jardueren zein instalazioen titularrak diren pertsonentzat eta lurzoruen jabeentzat edo edukizaitentzat.

los que soporten o hayan soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo, o los mecanismos de publicidad en el Registro de la Propiedad contemplados en el artículo 8 del Real Decreto 9/2005, de 14 de enero.

A fin de facilitar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en las dos normas mencionadas el artículo 33 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, estableció, dentro del capítulo destinado a regular los instrumentos de la política de suelos, que el Gobierno de la Comunidad Autónoma, a propuesta del órgano ambiental, aprobara un inventario de suelos que soporten o hayan soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

Esta es la finalidad a la que responde el contenido del presente Decreto en el que, por un lado se aprueba el inventario de los suelos que reúnen las características citadas, y por otro se regula su permanente actualización estableciendo el procedimiento para la inclusión de nuevos suelos, o la exclusión de los ya inventariados cuando pueda acreditarse que no soportan, y nunca han soportado, una actividad o instalación potencialmente contaminante del suelo, con independencia de que se hayan adoptado, por ejemplo, medidas de recuperación de la calidad del suelo.

La metodología utilizada para la elaboración del inventario que se aprueba por el presente Decreto se ha basado principalmente en la recopilación de información de las fuentes documentales municipales y supra-municipales, visitas de campo y entrevistas personales con técnicos y técnicas municipales con la finalidad, todo ello, de identificar y localizar las actividades potencialmente contaminantes del suelo y obtener datos sobre ellas.

Estrechamente vinculado con el inventario que se aprueba y regula en este Decreto, se halla el Registro administrativo de la calidad del suelo que creó el artículo 35 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero. Dicho Registro contiene toda la información que se obtiene de la aplicación de la citada ley incluyendo, entre otros datos y de forma complementaria al contenido del inventario, los epígrafes del CNAE y la denominación de las actividades o instalaciones potencialmente contaminantes que se desarrollan o que se hayan desarrollado sobre la parcela registrada o, en su caso, los supuestos que motivan tal calificación de la actividad o instalación, de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 3, apartado 2 del Real Decreto 9/2005, de 14 de enero.

El inventario que se aprueba en el presente Decreto, y sus sucesivas actualizaciones, constituye un instrumento meramente informativo de gran utilidad para todos aquellos agentes implicados en la política de prevención y corrección de la contaminación del suelo, tales como administraciones públicas, personas titulares de actividades o instalaciones y propietarias o poseedoras de suelos.

Ildo horretatik, eta otsailaren 4ko 1/2005 Legeari eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuari jarraiki, komenigarria da gogoratzea arau horretatik eratorritako betebeharrak lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egotearen ondorio direla batez ere, eta jarduera edo instalazio hori arau hauetako eranskin batean agertu beharko dela, ez baita nahikoa jarduera edo instalazio jakin bat onartutako inbentarioan agertzea.

Hori horrela, Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen aurretiko txostena jaso ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenari jarraituz, eta Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak 2008ko irailaren 30eko bileran aztertu eta onarpena eman ostean, hurrengo

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen zerrenda onartzea eta arautzea da. Horrela, bete egingo da honako bi arauetan xedatutakoa: otsailaren 4ko 1/2005 Legean (lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa) eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan (lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda ematen du, baita lurzoruak kutsatutzat jotzeko irizpideak eta estandarrak ere).

2.– Aurreko atalean azaldutakoaren arabera, lurzorua kutsa dezaketen jardueratzat edo instalaziotzat joko dira otsailaren 4ko 1/2005 Legeko II. eranskinean eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko I. eranskinean ageri direnak. Halakotzat joko dira aipatutako Errege Dekretuko 3. artikuluko 2. atalean zerrendatzen diren jarduerak eta instalazioak ere.

2. artikulua.– Inbentarioaren osaera.

1.– Dekretu honen eranskinean zerrendatutako lurzoruek osatzen dute lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten eta dituzten lurzoruen inbentarioa.

2.– Eusko Jaurlaritzako Geografi Informazioko Sistemaren bidez (GIS korporatiboa) inbentariatutako lurzoruen kokapena eta mugak. Geografi Informazioko Sistema administrazio horren web orrian dago erabilgarri.

3.– Inbentarioan lurzoru berriak sartzeko eta inbentarioko batzuk kentzeko, ingurumen arloan eskudun den sailburuak agindua eman beharko du, ondorengo artikulua erregulatzen duen prozedurari jarraiki.

3. artikulua.– Prozedura.

1.– Inbentarioan lurzoru bat sartzeko edo ateratzeko espedientea ofizios hasiko da, lurzoruaren kutsadura

En este sentido, y de conformidad con el contenido de la Ley 1/2005, de 4 de febrero y del Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, es conveniente recordar que las obligaciones derivadas de estas normas nacen, en la mayoría de los casos, de la existencia de una actividad o instalación potencialmente contaminante del suelo que deberá estar relacionada en alguno de los anexos de estas normas y no del hecho de que un emplazamiento concreto figure en el inventario aprobado.

En su virtud, previo informe de la Comisión Ambiental del País Vasco, y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de septiembre de 2008,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto aprobar y regular el inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo de conformidad con lo dispuesto en la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo y el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados.

2.– A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, tienen la consideración de actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo las que figuran en el anexo II de la Ley 1/2005, de 4 de febrero y en el anexo I del Real Decreto 9/2005, de 14 de enero. Tienen también esta consideración las actividades e instalaciones mencionadas en el apartado segundo del artículo tercero del citado Real Decreto.

Artículo 2.– Composición del inventario.

1.– Los suelos que se relacionan en el anexo a este Decreto componen el inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

2.– La localización y los límites de los suelos inventariados se visualizará a través del Sistema de Información Geográfica del Gobierno Vasco (GIS Corporativo) al que se puede acceder a través de la página web de dicha Administración.

3.– La inclusión de nuevos suelos en el inventario y la exclusión de los ya inventariados, se llevará a cabo por orden del Consejero o Consejera competente en materia de medio ambiente de acuerdo con el procedimiento que se regula en el artículo siguiente.

Artículo 3.– Procedimiento.

1.– El expediente de inclusión o exclusión de un suelo en el inventario se iniciará de oficio, por resolución de

prebenitzeko eta zuzentzeko eskumena duen sailburu-ordetzaren ebazpenez, edo interesdunaren eskaeraren ondorioz.

Inbentariotik lurzoru bat ateratzeko eskaera kokapenari buruzko azterketa historiko batekin justifikatu beharko da. Azterketa egiaztatutako erakunde batekin egin beharko du, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera (Dekretu horrek lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatze sistema ezartzen du, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten ditu).

Lurzoru bat inbentarioan sartzeko eskatzeko, aurreko atalean azaldutako justifikazio bera beharko da; horren ezean, lurzoria kutsa dezakeen jarduera bat izan duela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira (udal lizentziak, argazki historikoak, etab.).

Lurzoria sartzeko edo ateratzeko espedientea hamabost egunez egongo da jendaurrean.

2.– Prozedura ebazteko epea prozedurari hasiera ematen zaionetik hiru hilekoa izango da.

3.– Lurzoria inbentarioan sartzeko edo handik ateratzeko ingurumen arloan eskudun den sailburuak emandako agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Artikulu honetan agertzen ez diren gaietan 30/1992 Legea aplikatuko da, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena.

4. artikulua.– Inbentarioaren edukia.

1.– Lurzoria kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa publikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak xedatzen duen moduan (lege horrek ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Inbentarioak ondoko datuak jasoko ditu lurzoru bakoitzeko:

a) Inbentarioan sartutako lurzoruak identifikatzeko kodea.

b) Lurzoria dagoen udalerria eta lurralde historikoa.

2.– Lurzoria kutsa dezaketean jarduera berriak jarzteak eta gauzatzeak ez du onartutako inbentarioa aldatuko.

la Viceconsejería competente en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, o mediante solicitud de persona interesada.

La solicitud de exclusión de un suelo en el inventario deberá justificarse mediante la presentación de un estudio histórico del emplazamiento elaborado por una entidad acreditada de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 199/2006, de 10 de octubre, por el que se establece el sistema de acreditación de entidades de investigación y recuperación de la calidad del suelo y se determina el contenido y alcance de las investigaciones de la calidad del suelo a realizar por dichas entidades.

La justificación de una solicitud de inclusión de un suelo en el inventario se realizará de forma análoga a lo señalado en el apartado anterior o, en su defecto, mediante la presentación de documentación que acredite fehacientemente que sobre el suelo objeto de solicitud se ha llevado a cabo una actividad potencialmente contaminante del mismo (licencias municipales, fotografías históricas...).

El expediente de inclusión o exclusión será sometido a un trámite de información pública durante un plazo de 15 días.

2.– El plazo para la resolución del procedimiento será de tres meses desde su inicio.

3.– La Orden del Consejero o Consejera competente en materia de medio ambiente aprobando la inclusión o exclusión de un suelo en el inventario será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– En lo no previsto en este artículo serán de aplicación las normas de procedimiento previstas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 4.– Contenido del inventario.

1.– El inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo, que será público en los términos de la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente, contiene los siguientes datos para cada suelo inventariado:

a) Código de identificación del suelo inventariado.

b) Municipio y Territorio Histórico en el que se ubica el suelo.

2.– La instalación y desarrollo de nuevas actividades potencialmente contaminantes del suelo en los ya inventariados, no conllevará la modificación del inventario aprobado.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honen arabera onartutako inbentarioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gutxienez hiru urtean behin, ingurumen arloan eskudun den sailak duen informazioa kontuan hartuta.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ingurumen arloan eskuduna den sailari ahalmena ematen zaio dekretu honen eranskina alda dezan, hirugarren artikuluan azaldutako prozeduraren arabera.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko irailaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen da
aipaturiko eranskina**

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El inventario aprobado en virtud del presente Decreto será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco con, al menos, una periodicidad trienal, tomando en consideración la información que obre en poder del Departamento competente en materia de medio ambiente.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Departamento competente en materia de medio ambiente para modificar el anexo del presente Decreto de conformidad con el procedimiento previsto en su artículo tercero.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

**En Suplemento aparte se publica
el anexo que se cita**